

Haurtzaro Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA



2017ko uztaila



Aurkibidea

1.- SARRERA/ JUSTIFIKAZIOA

2.- TESTUINGURUAREN AZTERKETA

- 2.1.- HAURTZARO IKASTOLAREN JATORRIA ETA BILAKAERA (HISTORIA LABURRA).
- 2.2.- HAURTZARO IKASTOLA GAUR EGUN

3.- NORTASUNA ETA EZUGARRIAK:

3.1.- NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK

- IZAERA
- EGINKIZUNA
- IKUSPENA
- BALIOAK
- EZAUGARRIAK

- 3.2.- HAURTZARO IKASTOLAREN ANTOLAKUNTZA EGITURAREN PRINTZIOAK
- 3.3.- CURRICULUMAREN PRINTZIOAK
- 3.4.- PROZESUEN KALITATEA BERMATZEKO PRINTZIOAK

4.- HEZKUNTZA EREDUA

- 4.1.- IKASLEAREN IRTEERA PROFILA
- 4.2.- IRAKASLEEN PROFIL PROFESIONALA
- 4.3.- FAMILIA ETA GIZARTE HEZITZAILEAREN ERAGILE EREDUA
- 4.4.- HEZKUNTZA XEDEA

5.- ANTOLAKETA ETA GOBERNU EGITURA

- 5.1.- HAURTZARO IKASTOLA KOOPERATIBAREN EGITURA ETA GOBERNU GESTIOA
- 5.2.- FUNTZIONAMENDU PEDAGOGIKOA



1.- SARRERA/ JUSTIFIKAZIOA

Edozein ikastetxek, lehenengo eta behin, izaera juridiko bat eduki behar du, eta egin duen aukeraren arabera, legeak baldintza batzuk betearaziko dizkio.

Haurtzaro Ikastolak, legedian jasotzen diren eredu juridikoetatik, 1981an kooperatiba integrala izatea erabaki zuen; eta legeak agintzen duenaren arabera, estatutuak ere baditu.

Edozein erakunderentzat bezala, Haurtzaro Ikastolarentzat Estatutuak dira bete beharreko araudia, horietan jasotzen baitira antolamenduko oinarrizko arauak.

Zer da Hezkuntza Proiektua?

Estatutuak oinarrizko arauak badira ere, horiek errespetatuz, araudia osatu egin behar da, eta hori da HEZKUNTZA PROIEKTUAREN bidez egiten dena. HEZKUNTZA PROIEKTUAK, alderdi juridikoez gain, beste alderdi hauek jasotzen ditu: Ikastolako printzipio nagusiak, funtzionamendu administratiboa, funtzionamendu pedagogikoa eta zerbitzuen funtzionamendua eta eguneroko funtzionamendua.

Beraz, HEZKUNTZA PROIEKTUA Haurtzaro Ikastolako agiri nagusi eta garrantzitsua da, eta horregatik guztiok ezagutu beharrekoa da, besteak beste, gure haurren heziketaren norabidearen berri eta gure eskubide eta betebeharren berri izan dezagun.

Ikastetxe bat modu eraginkorrean kudeatzeko, Hezkuntza Komunitatea osatzen duten pertsona guztien ekintza koherente, koordinatu eta solidarioa behar da.

Eguneroko praktikak garbi erakusten digu intuizioak eragindako lotura gabeko jarduera kontrajarrietan, nahiz gutxi planifikatutako, edo larrialdiei erantzuteko burututako jardueretan oinarritutako kudeaketa-ereduek, behin-behinekotasuna, ziurgabetasuna eta emaitzarik gabeko ahaleginak eragiten dituztela.

HEZKUNTZA PROIEKTUAK, kalitatezko irakaskuntza lortzera zuzendutako jarrera positiboaren multzoarekin batera, ekintzarako estrategia koordinatu eta arrazionalak abiarazten saiatzen diren gero eta langile (dozenteak eta ez dozenteak), guraso eta ikasle talde gehiago egon daitezen laguntzen du. Horrela, parte hartzea ahalbidetzen duen eskola autonomoak, eskola-komunitate osoaren adostasunetik abiatuz, ikastetxe bakoitzak garatu nahi duen hezkuntza-eredua zehaztu behar du.

HAURTZARO IKASTOLAKO HEZKUNTZA-PROIEKTUA lantzeak, bere kide guztiengan jarduteko era aurrerakoia suposatzen behar du Ikastolarentzat. Dokumentu honetan asmoak eta helburuak jasotzeaz gain, ikastolaren ibilbidea markatuko duen filosofia adierazten da.



Hezkuntza-Proiektu honetan, eskola-komunitatea osatzen duten talde desberdinen asmoak formalizatu eta zehazten dira, honela Haurtzaro Ikastolari beste ikastetxeengandik nortasun desberdindu bat ematen zaio. Beraz, HAURTZARO Ikastolak beregain hartzen dituen balio eta printzipioak planteatzen dituen dokumentua da. Hau da, ikastolaren ezaugarriak zenbatu eta definitu, lortu nahi dituen helburuak formulatu eta erakundearen antolamendua adierazten duen kudeaketarako tresna da HEZKUNTZA PROIEKTU hau, noski, ikastolaren testuinguruarekin bat datorrena.

Bukatzeko, esan, printzipio batzutan oinarritutako HEZKUNTZA PROIEKTUA dela hau:

- **Proiektzioa:** heziketa ekintza, antolaketan eta funtzionamendua hobetzeko egina dago.
- **Globaltasuna:** ikastola osatzen duten oinarritzko elementuak erlazionatzen dituen proiektua da.
- **Integrazioa:** proiektu integrala da, printzipioak, teoria eta praktika elkarlotuak daude; Ikastola eta gizartea ere bai.
- **Errealismoa:** eguneroko egoerei aurre egiteko proiektua da, eguneroko lana eta gure errekurtsoak kontuan hartuaz egina.
- **Malgutasuna:** Hezkuntza bera prozesu bat izanik, gerora etor daitezken aldaketei irekia dago.



2.- TESTUINGURUAREN AZTERKETA

2.1.- HAURTZARO IKASTOLAREN JATORRIA ETA BILAKAERA(Historia)

- **1967ko urriaren 16an ESCUELA PARROQUIAL AURTZARO** sortu zen. Garaiko lege oztopoei aurre egiteko, beste herri askotan bezala, sorrerako ikastola hau Oiartzungo Elizaren titulartasuneko zen:
 - 24 ikasle eskolatu ziren urte horretan Ikastolan.
 - 228 herritar laguntzaileri esker jarri zen martxan Ikastola.
- **1975ean BIANDITZ ELKARTE ANONIMOA** sortu zen:
 - Titulartasun akademikoa BIANDITZ ELKARTE ANONIMOA pasa zen.
 - BIANDITZ ELKARTE ANONIMOAK Ikastolako lehen eraikina egin zuen.
- **1981ko maiatzaren 11n HAURTZARO IKASTOLA SOZIETATE KOOPERATIBO MUGATUA** sortu zen. Titulartasun akademikoa Bianditzetik Kooperatibara pasa zen.
- **1992an KILOMETROAK, Gipuzkoako ikastolen jaia, antolatu genuen “Oiartzun gogoz eta gogor erantzun” lelopean.**
- **1993an EUSKAL ESKOLAREN LEGEAREN** aurrean, publiko ez egitea erabaki zuen. Nahiz eta publiko izateko bokazioa izan, beste ikastola askok bezala, ikusten zen bide horretatik ez zirela bermatzen Ikastolak jarriak zituen helburuak. Helburu horiek lortzeko, ezinbesteko baldintza zen kudeaketan autonomia izatea, eta administrazioaren mende egonik, autonomia hori izatea ezinezkoa ikusten zen.
- **1996an Oiartzungo Udalak UDAL ESKOLA PUBLIKOAREN** sorrera bultzatu zuen. Elizalde Ikastetxea, Haurtzaro Ikastola eta herriko hiru haur-eskolak batuko zituen proiektu bat sortu eta oiartzuarrei 0-18 irakaskuntza zerbitzua Oiartzunen ahalbideratzeko aukera eman. Haurtzaro Ikastolak proiektu honi baiezkoa eman zion eta, aldiz, Elizalde Ikastetxeak ezezkoa eman zion. Ondorioz, Udalak Partzuergoa sortu zuen, Ikastolarekin eta haur-eskolekin batera, 0-16 irakaskuntza zerbitzua eskaintzearren.
- **2002.an HERRI ONURAKO izendapena jaso genuen.-** Izendapen hau irabazteko asmorik ez duen elkarteei eramaten zaio. Izendapen honekin ikastolaren benetako izaera modu formalean jasota gelditzen da. Hau da, nahiz eta legalki erakunde pribatu bat izan, gure izaera erabat publikoa da.
- **2006an KILOMETROAK, Gipuzkoako ikastolen Jaia, bigarren aldiz antolatu genuen “Ingoyeu Ingoñeu” lelopean**
- **2009/2010 ikasturtean, hausnarketarako garaia zen eta Ikastolaren lehen Plan Estrategikoa idaztea erabaki** zuen Lehen Plan Estrategikoa idatzi zen 2011an. Lan hori gauzatzeko, Ikastolen



Elkarteko KEI (Kalitate Egitasmo Integratua) egitasmoko koordinatzailea eta arduraduna zen Juanjo Gomezen laguntza jaso zen. Bi helburu garrantzitsu lortu nahi ziren:

- Ikastolako ahalik eta partaide gehienen parte-hartzea lortuz gero, etorkizuneko ildo estrategikoak guztion artean erabakitzea.
- Erabakitako ildo estrategikoak ikastolaren etorkizuneko norabidea izatea.

Lehen Plan Estrategikoa idaztearekin batera, KEI egitasmoaren bidez ikastola kudeatzea erabaki zen. Bide hori jorratzeari ekin zion zuzendaritzak, Ikastola barruko prozesuak ordenatu eta kalitate-ereduen parametroetan sartzeko.

- **2014/2015 ikasturtea, Bizikidetzaren ikasturte izenda daiteke.** Urte horretan abiatu zen Bizikidetzaren Behatokia, irakasleak GOLDEN5 egitasmoko prestakuntza-saioetan murgildu ziren, haurren barne ahalduntzea uztartzeko, kontzientzia kolektiboa lantzeko eta elkarbizitza osasuntsua elikatzeko HAZIAK I+G+b proiektu esperimentalak martxan jarri zen eta, azkenik, guraso ordezkarien esparruan hausnarketa serio eta interesgarria burutu zen: ikaskideen arteko TRATU ONA lantzeko proiektua.
- 2016/2017 ikasturtean, jazarpenaren aurkako KiVa egitasmoa jarri da martxan.

2.2.- HAURTZARO IKASTOLA GAUR EGUN

Haurtzaro Ikastola gaur, 2017an **hezkuntza-erakunde sendoa** da. Haurtzaro Ikastolaren bokazioa publikoa izatekoa da.

Euskara eta euskal kulturaren oinarritutako kalitatezko hezkuntza izateaz gain, **herriari oso loturik** dagoen egitasmoa da. Hezkuntza eragile aktiboa da, **ikaslea erdigunean** duen **komunitate sendo eta aktibo** batek osatzen duena eta etorkizuneko **gizarte parekide eta euskalduna** sortzeko lanean ari dena.

Ikastoletako Pedagogia berritzailean oinarritutako hezkuntza-eredua eskaintzen die herritarrei: **“Haurtzaro Ikastola, Bizitzarako Hezkuntza”**.

Haurtzaro ikastolak kalitatezko hezkuntza eskaintzeko aukera egina du eta horretan saiatzen da; horren adierazle da Deustu Unibertsitateak sortutako Horreum fundaziotik kudeatzen den KEIren (Kalitate Egitasmo Integratua) aldeko apustua egin izana. 2017ko ekainean, akreditazioa lortzeko asmoz, lehen auditoria egingo du.

Ikasturte honetan ikastolaren 50. Urteurrena ospatu da.

Gaur egun, 0-18 urte bitarteko haurrentzako euskarazko hezkuntza zerbitzu osoa eskaintzen du Haurtzaro Ikastolak:

- 0-3 urte bitarteko etapa Urmendin burutzen da (129 ikasle).
- 3-16 urte bitartekoa Haurtzaro Ikastolan bertan. 2016/2017 ikasturtean, 3-16 urte bitarteko 885 ikasle eta 580 familiak osatzen dute Haurtzaro Ikastola.
- 16-18 urte bitartekoa Oiartzo Batxilegoan (186 ikasle).



Etorkizunean ere, aitzindari izan nahi du Haurtzaro Ikastolak

Haurtzaro Ikastolaren 50 urteko ibilbideak ongi erakusten du Haurtzaro Ikastolak etorkizunari baikor begiratzeko motiboak badituela. Urte horietan guztietan, une zail eta korapilatsu bat baino gehiago bizi izan du Ikastolako komunitateak, baina baita fruitu ederrak jaso ere. Oiarzungo herritarrek merezi zuten gisako Ikastola sortzeko borondatea eta gaitasuna izan dute eta lan horren itzulkin herritar euskaldun, buru aske eta zorientsuak dira.

Haurtzaro Ikastolak 50 urte eman ditu, iparra galdu gabe, euskal hezkuntza publikoaren alde lanean, euskal curriculum indartuz, etorkizuneko herritar buru aske eta jantziak hezten eta beste hainbeste urtez horrelaxe egiten jarraitu nahi du.

3.- IKASTOLAREN NORTASUNA ETA EZUGARRIAK:

3.1.- NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK

3.1.1.- HAURTZARO IKASTOLAREN IZAERA:

HAURTZARO IKASTOLA Soz. Koop.” deituraz, Oiarzunen irakaskuntzako kooperatiba bat eratzen da, izaera integrala duena. Euskadiko Kooperatibei buruz Eusko Legebiltzarrak onetsitako 4/1993 (ekainaren 24ko) Legearen printzipio eta xedapen arabera, baita legezko aginduen eta estatutu hauen arabera ere.

Bestalde, 2004ko ekainaren 1eko, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren 3652 aginduak horrela jasota, Haurtzaro Ikastola Soz. Koop. Herri onurako erakunde bat da.

3.1.1.1.- Helburua.

BAT.- Irakaskuntzako kooperatibak, jakintza edo hezkuntzaren edozein adarretan, maila, etapa, ziklo, gradu eta mota ezberdinetako irakas-lana egiten dutenak dira. Eskolaz kanpoko ekintzak eta horiei loturikoak ere egin ditzakete, baita eskola-zerbitzu osagarriak eman ere, eta irakaspen lanerako lagungarri izan litezkeen guztiak.

BI.- Sozietatearen helburua, bazkideetuen seme-alabei hezkuntza euskaraz kooperatiboki ematea da, orain berak dituen ikastetxeen bidez edota etorkizunean izan ditzakeen bidez; erabat baztertzen da lukuru asmorik eta debekatu egiten da itzulkin edo erretornu kooperatiboen banaketa, oinarrizko printzipio honen arabera:

Ikasleen heziketa integrala, eta honek esan nahi du ez bakarrik jakintza-arlo ezberdinak irakastea, baita pertsona aske eta arduratsu izateko prestatu eta ikasleen nortasuna garatzea ere. Bazkideen seme-alabei eta senideei elebitasuna praktikara eramanez, herriak behar duen eraz eta tamainaz.



3.1.1.2.- Egoitza soziala.

Egoitza soziala.Oiartzungo Elorrondo Kalea z/g, 20.180 Oiartzunen finkatzen da, eta udalbarruti beraren barnean aldatu nahi izanez gero, Kontseilu Errektoreak har dezake erabaki hori.

3.1.1.3.- Iraupena eta lurralde-eremua

BAT.- Kooperatibaren iraupena mugagabea izango da, eta eraketako eskritura publikoa ematen edo sinatzen denean ekingo die bere eragiketei.

BI.- Bere jardueraren lurralde-eremutzat Oiartzun izango du, beti ere kontuan izanik eremu hau bere bazkideekin kooperatibizaturiko sozietate-eragiketetarako bakarrik dela, eta ez Kooperatibak garatu dezakeen beste edozein jarduera-motatarako.

3.1.2.- HAURTZARO IKASTOLAREN EGINKIZUNA:

Haurtzaro ikastola hezkuntza kooperatiba integrala da. Bere eginkizun nagusia ikaslearen hezkuntza integrala, hau da, pertsonaren erabateko hezkuntza, BIZITZARAKO HEZKUNTZA eskaintzea da.

Hezkuntza komunitate osoa ikastolako egitasmoekin, euskal kultura eta hizkuntzaren transmisio, garapen eta indartzearekin konprometitua eta inplikaturik dago, eleanitz goiztiar proiektuaren ildotik. Maila berean, ikastola gure herrian guztiz txertatua dago eta ikastola eta herriaren arteko lotura estua da.

Horretarako talde-lana, elkarrizketa, tolerantzia eta solidaritatea bezalako balioak eta jokaera demokratikoaren garapena dira lanerako bitartekoak.

Hau guztia lortzeko barne ebaluazioa da hobekuntzarako bitartekoa, eta beharrezko baliabideak medio, ikastolako profesional guztien eraberritzea eta eguneratzea bideratuko da.

Ikasle printzipiodun, kritikoa, burujabe eta aukera politiko eta erlijiosoetan independenteak prestatuko dira.

3.1.3.- HAURTZARO IKASTOLAREN IKUSPENA:

HAURTZARO IKASTOLA Soz. Koop.” deituraz, Oiartzunen irakaskuntzako kooperatiba bat da, izaera integrala duena. Bestalde, 2004ko ekainaren 1etik aurrera, Haurtzaro Ikastola Soz. Koop. Herri onurako erakunde bat da.

Ikastolak euskara eta euskal kultura berreskuratzeko, indartzeko eta hedatzeko sortu baziren, HAURTZARO IKASTOLAK, gaur egun, helburu hauekin bat egiten jarraitzen du eta jarraituko du Oiartzunen, bere transmisioan jarrera eraginkor bat hartuz. Aldi berean, Haurtzaro Ikastola beste lurraldeetako kultura eta hizkuntzei irekia dago, beraingandik eta beraiekin aberastuz.



Hautzaro Ikastolaren helburua da, heziketarako erakunde bat denez, Oiartzungo herriari kalitatezko hezkuntza integrala eskaintzea, giza baloreetan eta etengabeko berrikuntzan oinarritua; bertako ikasleek beren ezagupen, trebetasun eta gaitasun doikuntza, adin desberdinetara egokiturik izatea, eta garapen intelektuala, fisikoa, emozionala eta moralak lortzea, bizitzan eta gizartean gozaten saia daitezen eta pertsona bezala beren ardurak hartu eta bete ditzaten.

3.1.4.- BALIOETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA:

Hautzaro Ikastola, 3-16 bitarteko oiartzuarrei eta inguruko herritarrei zuzenduriko kalitatezko hezkuntza euskalduna eskaintzen duen ikastetxea da. Herri ekimenetik sortua izanik Oiartzunen euskara eta euskal kulturaren zabalkundearen konpromisoa du.

Hezkuntzan eta bizikidetzan Euskara irakasteko hizkuntza izanik, eleaniztasunean hezten ditu ikasleak.

Hezkuntza bere osotasunean ulertzen du, integrala, ezagutzaz gain baloreak landuz.

Hautzaro ikastola erakunde gisa ondorengo balioak bereak egiten ditu:

- EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREKIN KONPROMISOA
- BIKAINASUNA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA
- BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILETASUNA
- LANKIDETZA, ELKARLANA ETA PARTE-HARTZEA
- INGURUMENAREKIN KONPROMISOA
- SOLIDARITATEA

1.- EUSKARA ETA EUSKALDUNTASUNA:

Hizkuntza herri baten funtsezko ezaugarrietariko denez, Ikastolara iristen diren ikasle guztiek euskararen erabilpen zuzena, komunikaziorako eta ikastolan eman daitezkeen ikasketetarako bereganatuko diren ezagutzetarako, lortzea izango da helburu nagusia.

1. Komunitate edo herri orok, bere kultura bere luze-zabal osoan gorde, bizi, birsortu eta garatzeko nahiz bere kideei familiaren, eskolaren eta gainerako hedabideen bitartez transmititzeko eskubidea eta betebeharra ditu. Ikastola-mugimendua, euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, erabilpen eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen eta hori du ezaugarritzat. Horrela, eta eskubide hori gauzatzen duelarik, beste kultura batzuei ere irekia, ukipeneko auzo-kulturei batez ere, kulturartekotasunezko hezkuntza-planteamenduak era osasuntsuan eginez eta gauzatuz.
2. Hautzaro Ikastolak, euskal hizkuntza eta kultura erreferentzia-ardatz moduan hartuta, hizkuntzen eta kulturen ikuspegi integratzailea eragiten du eta hizkuntza- eta kultura-konpetentziak osagarritasun-ikuspegiarekin ulertzen ditu.



3. Haurtzaro Ikastolak, Euskararen Lurralde gisa hartzen du Euskal Herria, bere historia Pirineoen bi isurialdeetan hedatzen den mendebaldetik mugarik gabeko jendez osatutako espazio unibertsalera irekita ekarpen desberdinekin eraiki duen eta eraikitzen ari den lurraldetzat, lehendik definitutako baina etengabe berritzen eta aberasten ari diren hizkuntza- eta kultura-arrasto berezietan oinarritua.
4. Gainera, bere hezkuntza-lana gauzatzeko, Haurtzaro Ikastolak, Euskal Herria izena, Euskaltzaindiak 2003. urteaz geroztik erabiltzen duen zentzu berean erabiltzen du, hots, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroak (Behereak eta Garaiak) eta Zuberoak osatzen duten lurralde-multzoa identifikatzeko.

2.- BIKAINTRASUNA ETA ETENGABEKO HOBKUNTZA:

Haurtzaro Ikastolak, etorkizuna aurreikusiz, ahalik eta hezkuntza eredu hoberena eskaintzea du helburu. Horretarako alde batetik etengabeko hobekuntzaren saikera eta bestetik hezkuntza sare eran jardun nahi duen egituren aukera egiten du.

3.- BERRIKUNTZA ETA EKINTZAIETASUNA

Gure hezkuntza-komunitatean eta gure gizartean kultura demokratikoa finkatuko duten jardura adostuak eragitea nahi dugu. Prozesu parte-hartzaileek izango dute lehentasuna gure ikastolan. Ikasleek, gurasoek zein irakasleek, ikastolan eta gizartean ekintzaitasuna garatzeko bideak, egoera propioak izan behar dituzte: parte hartzeko foroak, gizartea zein ikastola hobetzeko proposamenak jasotzeko eta eragiteko bide sistematizatuak. Ikaslea hezi eta eragiten duen testuinguruetatik eta testuinguruetarako ikasiko duelako, beharrezkoa ikusten dugu eskola-sistema eta eskola-kultura eraldatzea; testuinguru berriak sortzea eta eskolako espazio eta denborak irekitzea.

4.- LANKIDETZA, ELKARLANA ETA PARTE-HARTZEA

Lankidetzaren helburua giza haremanetan guztiek onurak jasotzea da eta elkarren arteko errespetuan oinarritzen da. Lankidetzak orekatasuna, gaitasuna, erraztasuna eta entusiasmoa bermatzen laguntzen du. Bakoitzak urrats bat emateko, txikia bada ere, bitartekoak ezartzen ditu, gero urrats horiek guztiak batuta helburua lortzea ahalbidera dezaten. Lankidetzak posiblea da erraztasunez eta ez astuntasunez ematen denean. Eta erraztasunez emateak, zintzotasuna eta emankortasuna eskatzen ditu. Emankortasunak, berriz, norbera beste guztien lankidetzak jasotzeko gai egiten du. Norberak besteengan sinesten badu eta konfiantza erakusten badu, beraiengan ere sentimendu berberak eraikitzen ditu, eta honek errespetua, laguntza eta elkartzun giro aberasgarria sortzen du.

5.- INGURUMENAREKIN KONPROMISOA

Haurtzaro Ikastolaren hezkuntza filosofiari helduz, ezin da ahaztu Ikastolak garapen jasangarriaz arduratzeko eta ikastolan lantzeko duen erantzukizunaz. Baliabideen urritasunaren kontzientzia hartu eta beraien erabilera osasuntsua bultzatzeko ideia berriak sortu behar ditugu. Komunitatearekin batera, ingurumenaren zaintzarekiko sentsibilitatea piztu eta hobetze-ekimenetan parte aktiboa izan behar du Ikastolak.



Gure bizitza-kalitatea mantentzeko eta, ez hipotekatzeko etorkizuneko belaunaldiak beraien beharrak asetzeko ezinbestekoak izango dituzten baliabideak, bide berriak asmatzen eta sortzen jarri behar gara.

6.- SOLIDARITATEA

Besteekin eskuzabaltasunez erlazionatzeko gaitasuna da. Elkartasuna elkar ezagutze eta desberdintasunekiko errespetuen bidez garatzen da. Jarrera honek zera suposatzen du, gizartearen balore nagusien edo berdintasuneko harreman baloreekin konpromisoa hartzen dugula.

Pertsonen arteko solidaritateak, bizitzan zehar norbanakoak topa ditzakeen zailtasunen aurrean irautea ahalbideratzen du. Solidarioa den pertsonak ez du zalantzarik egingo zailtasun egoeretan dagoen edonorekin kolaboratzeko, eta laguntza eta babesa emateko.

Hautzaro Ikastolan txikitatik sustatzen da solidaritatea, beste balore batzuen oinarria dela ulertzen delako. Hala nola errespetua eta tolerantzia.

Balio horiez gain, bizikidetza ikuspegitik, ondorengo balioak lantzea izango da helburu. Kontuan izanik balore hauen bitartez GIZA DUINTASUNA ziurtatu nahi dela:

- ERRESPETUA
- KONFIANTZA
- ELKAR LANA – TALDE KONPROMISOA
- AUTOESTIMUA
- ENPATIA
- TOLERANTZIA

Balio hauek honela ulertzen eta definitzen ditugu:

1.-ERRESPETUA

Indibiduala: Besteen balioa eta ezaugarriak errespetatzea, eta nerek ere errespetatuak izatea.

Taldekoa: kideen eskubideak errespetatuko dituzten prozedurak sustatzea eta garatzea.

2.-KONFIANTZA

Indibiduala: Beste pertsona baten sentipenak eta pentsamenduak entzutea eta norberarenak ere konfiantzazko giro zintzo batean adierazteko aukera izatea.

Norberak bere trebetasunetan sinestea positiboki lana egin ahal izateko.

Taldekoa: Taldekideek eta liderrek partaide guztiek beren pentsamendua eta sentipenak adieraztera



bultzatzea, horretarako beharrezkoa den konfiantzazko giro bat sortuz.

3.-ELKARLANA TALDE KONPROMISOA

Erantzukizunak partekatuz beste pertsonekin elkarlanean aritzea.

4.AUTOESTIMUA

Indibiduala: Pertsona batek estimatzen eta errespetatzen dituenengandik balioetsia izatea.

Taldekoa: Pertsonak diren bezalakoak direlako eta ez egiten dutenaren arabera baloratuak izango diren lan-giro bat garatzea.

5.-ENPATIA

Indibiduala: Kalitatezko presentzi baten bitartez eta zenbaitetan hitza bitarteko bezala erabili gabe gure ingurukoen izaera eta sentimenduak onartzea.

Taldekoa: Talde bateko lider bati bere ingurukoen ezagutzak emango dio besteen beharrei erantzuteko gaitasuna eta benetan baliagarria izateko gaitasuna.

6.-TOLERANTZIA

Beste pertsona edo taldearen ideia edo ekintzekin ados egon ez arren hauek errespetatzean datzan jokaera.

3.1.5.- HAURTZARO IKASTOLAREN EZAUGARRIAK:

3.1.5.1- familiak eta ikasleak:

Ikasleen jatorria: Haurtzaro ikastolaren hezkuntza eskaintza Oiartzungo haurrei zuzendutakoa izan arren, inguruko familia gutxi batzuk aukeratzen dute beren seme-alaben ikastetxe modura:

- Ikasleen %89 Oiartzun herriko haurrak dira. %11 inguruko herrietakoak
- Familien %73 euskalduna da; %27aren familia hizkuntza gaztelania da.

3.1.5.2- instalakuntzak:

Haurtzaro Ikastolako instalazioak guztira 12.801 m²ko azalera dute.

- Hezkuntza eremuko eraikinak: 5.015 m²
- Jantokia eraikinak: 749 m²
- Jolas eremuak: 7.036 m²



3.2.- HAURTZARO IKASTOLAREN ANTOLAKUNTZA EGITURAREN PRINTZIOAK

3.2.1.-IKASTOLEN MUGIMENDUAREN ERAGILE ETA PARTAIDE.

BAT.- Ikastolak bere sorreratik, Euskal Herria osatzen duten lurralde guztietan eragina izateko jaio ziren, hezkuntza proiektu nazional bat eratu nahian.

Hautzaro Ikastola ikusmira horren eragile eta partaide da, eta gainera Euskal Eskolaren Legea indarrean sartuz gero ikusmira hori indartu egin da.

BI.- Ikastolen mugimenduak ikusmira nazional horren araberako antolamendu egitura osatu du, eta egitura horretan Hautzaro Ikastolak era aktiboan parte hartzen du horretarako sortutako bideen bidez.

3.2.2.- HEZKUNTZA ESKAINTZA ZABALA

BAT.- Oiertzuarrei hezkuntza eskaintza zabalena ematea da Hautzaro Ikastolaren printzipio nagusitako bat.

BI.- Printzipio hau betetzeko, Hautzaro Ikastolak egoki ikusten dituen akordioak sina ditzake erakunde publiko edo pribatuekin, horretarako jarraituz Hezkuntza Proiektuak jasotzen dituen onarpenerako prozedurak.

3.2.3.- HIZKUNTZAREN TRATAERA

BAT.- Ikastolak euskara eta euskal kultura berreskuratzeko, indartzeko eta hedatzeko sortu baziren, *gure ikastolak, gaur egun, helburu hauekin bat egiten jarraitzen eta jarraituko du Oiertzunen, jarrera eraginkor bat hartuz bere transmisioan.* Aldi berean, Ikastola beste lurraldeetako kultura eta hizkuntzei irekia dago, beraiengandik eta beraiekin aberastuz.

BI.- Euskara eta euskal kultura berreskuratzeko, indartzeko eta hedatzeko, Hautzaro Ikastolaren funtzionamendurako honako neurriak hartzen ditu:

- a) Ikastolak ez ditu onartu Euskal Herritik heldu diren dokumenturik baldin eta euskaraz idatzita ez badago, eta ondorioz igorleari bueltatu egingo dira.
- b) Guraso edo tutoreekin komunikazio idatzia.- Gurasoei banatzen zaien ohar idatziak honako hizkuntza irizpideak bete beharko ditu:
 - Ikaslearen gurasoa edo tutorea batek euskaraz baldin badaki, oharra euskara hutsean bidaliko zaio.
 - Ikaslearen guraso edo tutoreak ez badakite euskaraz, oharra euskaraz eta gaztelerez bidaliko zaio.



c) Ikastolak antolatzen dituen bileretan bete beharreko neurriak:

1.- Bilera bakarra egingo du eta funtsean euskaraz.- Erabaki hau hartzeko bi arrazoi daude:

- Haurtzaro hizkuntza komunitate desberdinetako kideen artean euskara hizkuntzaren aldeko sentsibilizazioa, konzientziazioa, konpromisoa bideratzea eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea.
- Bilerak, komunikazio foroak izanik, horien helburuak argitzea: komunitateko partaideen arteko sozializazioa-integrazioa bideratzea edo komunikazioa transmititzea.

2.- Bilera hauetan jarraitu beharreko prozedurak:

• **Bilera baino lehen:**

- Deialdian bilera bakarra egingo dela adieraziko da. Aldez aurretik (etapa bakoitzean adostuko da zenbat egun lehenagotik), guraso guztiei txostena bidaliko zaie: Guraso erdaldunei txosten elebiduna eta euskaldunei euskara hutsean egindakoa.
- Txostenaren ezaugarriak:
 - Guraso erdaldunei bidalitako txostena bi zutabetan egingo da, ezkerrean idatziko da euskaraz eta eskuinaldean gazteleraz. Modu horretan, bi hizkuntzei trataera berdina eskainiko zaie.
 - Txostenak bileran transmitituko den informazioa jaso behar du. Hori horrela izateko, gaztelaniako itzulpena ahalik eta zehatzena izango da.
 - Txostenaren atal bakoitzaren bukaeran taula bat txertatuko da gurasoek euren galderak idatzi ahal izateko.

• **Bileran bertan:**

- Hizlariak
 - Hizkuntza erraza erabiltzen ahaleginduko gara, argia, xumea eta teknizismorik gabekoa.
 - Bileraren estiloa norberak erabaki behar du.; alegia, gaiak azaldu egingo diren edo idatzitako testuaren irakurketa egingo den.
 - Mantso eta patxadaz hitz egiten ahaleginduko gara, baita ongi ahoskatuz ere.
 - Ulermena zailtzen ahal duten esapide edota hitzen kasuan sinonimoak erabiltzera jo beharko dute: adibidez, “bermatu” edo “garantizatu”.
 - Idatzitako testutik ateratzen garen momentutik, erreferentziak, azalpenak... emateko, horiek guztiak itzuli egin beharko dira.
 - Bileretan euskarri grafikoak erabili behar badira, horiek euskaraz izango dira eta gaztelaniako itzulpenak bilera hasi aurretik banatuko zaizkie.
- Gurasoak
 - Txosteneko puntu bakoitzaren amaieran, edozein hizkuntzatan galderak (etxetik idatzita ekarritakoak edo momentuan sortutakoak) egiteko aukera



izango dute, eta erantzuna ere behar den hizkuntzan eskainiko zaie, beti ere bilera euskaraz jarraituz.

- Eskubidea izango dute eskatzeko: beste gurasoek egindako galdera-erantzunak itzul dakizkien.
- **Bileraren amaieran:** Guraso guztiei 10 minutuko denbora tartea eskainiko diegu behar dituzten argibideak emateko.
- **Akta:** Bileran landutako gaiak eta egindako galdera-erantzunak jasoko ditu. Guraso euskaldunentzat euskaraz idatziko da eta guraso erdaldunentzat elebidunez.

HIRU.- Beste lurraldeetako kultura eta hizkuntzatarira irekia egotea, ondorengo neurritan gauzatzen da:

a) Euskara ikasle guztien lehen hizkuntza izatea izango da Haurtzaro Ikastolaren helburu nagusia.- Hizkuntza herri baten funtsezko ezaugarrietariko denez, Ikastolara iristen diren ikasle guztiek euskararen erabilpen zuzena, komunikaziorako eta ikastolan eman daitezkeen ikasketetarako bereganatuko diren ezagutzetarako, lortzea izango da helburu nagusia.

b) Eleaniztasunaren proiektua eramango du aurrera.- Haurtzaro Ikastolak ikasleak gaztelaniaz, ingelesaz eta frantsesez ondo moldatuko diren pertsonak prestatzeko planifikatu beharko du bere irakaskuntza proiektua. Besteen artean, honako neurriak hartzen dira:

- 1.- Gaztelaniaren inguruan, egungo Euskal Herriko hizkuntza errealitatea kontuan hartuz, Haurtzaro Ikastolak ikasleen gaztelaniako hizkuntza kompetentzia ziurtatuko du, ikasleak edozein gizarte nahiz eskola giroan normaltasunez bizi daitezen. Gaztelaniaren ezagutza Lehen Hezkuntzako 2. mailan irakasten hasiko da.
- 2.- Ingelesa Haur Hezkuntzako 2. mailan irakasten hasiko da, Euskal Herriko Ikastolek eratu duen programa jarraituz.
- 3.- Frantsesa aukerazko gaia izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Erabaki hau hartzerakoan bi arrazoi egon dira: batetik da gaur egungo gizartean hizkuntza aniztasuna hezkuntza kalitatearekin identifikatzen dela, eta bestetik, Oiartzunen kokapena eta tradizioz hizkuntza hau ikasi duen herria izatea.

3.2.4.-IDEOLOGIA ANIZTASUNA

BAT.- Ikastola Euskal Herriko pentsaera eta joera desberdinen isla da



BI.- Printzipio hau gauzatzeko ondorengo neurriak indarrean daude:

- a) Ez du inolako jatorri, arraza, sexu, ez eta erlijio, politika, ekonomia eta filosofia diskriminaziorik onartuko, ikastolan nahiz kanpoan eman daitezkeen ideia desberdinen aurrean errespetutsu azalduko da.
- b) Aldi berean, herri bat osatzen dugun eta izaten jarraitu nahi dugun neurrian, bateratzen gaituzten guztion uztarri diren ideia eta itxaropenekin, bat egingo du Haurtzarok.
- c) Edozein elkarteren aldeko edo kontrako balorazio eta adierazpenak egitea ez da Haurtzaro Ikastolaren egitekoetan sartzen eta arreta handia beharko da hel dakizkiokeen eskaerekin. Haurtzaro Ikastolak, eskaera aztertzeko unean, oso kontuan eduki behar du ikastolaren baitan pentsaera eta ideologia askotariko lagunak egonik, egin dezakegun balorazio edo adierazpenarekin bat ez datozenak egon litezkeela, eta, horren ondorioz, jarrera hartu beharrak Haurtzaro Ikastola eztabaidaren zurrumbiloan sarraraz lezakeela, gure ikastola beraren pluraltasuneko izatea eta etorkizuna arriskuan jarriz. Horregatik, Haurtzaro Ikastolak, eta, bere izenean, Kontseilu Errektoreak, euskara eta ikastolaren kultur jarduerarekin lotura zuzena ez duen beste edozein erakundetatik etor dakizkiokeen jarrera-adierazpen proposamenei ezezkoa esateko erabakia hartuko du.

3.2.5.- PAREKIDETASUNA GESTIO ETA FUNTZIONAMENDU EGITURAN

Haurtzaro Ikastola bazkide mota desberdinak osatzen dute: guraso, irakasle, ikasle, pertsonal ez-irakasle, beste bazkide, herriko Administrazioaren ordezkari, etab. Horregatik dauden eta eman daitezkeen gestio-organo kolektiboak PAREKIDETASUNEZ osatuko dira.

Dena den, eta lan-taldeak eraginkorrakoak izan daitezen, ez da beharrezkoa izango, talde guztietan, ikastola osatzen duten bazkide mota guztien presentzia. Partaidetza gestio-organoen izaeraren eta lan-motaren arabera antolatuko da.

Halaber, ikasleen partaideen eskubidea ziurtatuko da adina eta gaien arabera.

3.2.6.- ETENGABEKO HOBKUNTZAREN PRINTZIPIOA.

Haurtzaro Ikastolak, etengabe aldatzen ari den munduan era jarraikian ikasi eta berritzeko gai izango den eta aldaketarako, berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako prestatutako hezkuntza-sare eran jardungo duen egituraren aukera egiten du.

3.2.7.- ENPRESA-ZENTZUAREN PRINTZIPIOA.

Haurtzaro Ikastolak eraginkortasun-irizpideak erabiltzen ditu iritsi nahi dituen emaitzak lortzeko, bai ikastolaren beharrianak asebetetzeari dagokionez, bai bere bezeroei erantzuteari dagokionez eta baita bere berariazko kudeaketa-sistemei erantzuteari dagokionez ere.



3.2.8.- TOKIKO ELKARRERAGINAREN ETA ELKARRERAGIN UNIBERTSALAREN PRINTZIPIOA.

Hautzaro Ikastolak lankidetzeta-harremanak eta itunak ezarriak ditu hezkuntza-, kultura- eta gizarte-arlo desberdinetako beste agente batzuekin, beti ere interes komuneko proiektuen eta egitarauen garapenaren inguruan. Horien artean lehentasunezkoak dira egitarau hauek: tokian tokiko arloan Euskal Curriculuma, Euskal Eskola eta Euskal Unibertsitatea eta arlo unibertsalean, beren hizkuntza duten eta/edo beren hezkuntza-sistema izan nahi duten herri eta nazioetako elkarte eta erakundeekin, Europako Batasunaren esparruan arreta berezia jarritz.

3.3.- CURRICULUMAREN PRINTZIPIOAK

Hautzaro Ikastolak bere egiten du Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalaren (1948) 26. artikulua edukia, hain zuzen ere honako hauek dakartzana: hezkuntza-eskubidea eta obligazioa nahiz oinarritzko hezkuntza-aldian gutxienez izan beharreko doakotasuna; giza nortasuna bere osotasunean garatzeko helburua eta giza eskubideekiko eta oinarritzko askatasunekiko errespetua sendotzea; eta familiak lehentasun osoz beren seme-alabei eman nahi dien hezkuntza mota aukeratzeko duen eskubidea.

Bestalde, Europako Parlamentuaren gomendioetan definitutakoaren arabera, ikastolen artean osatutako Euskal Curriculumean definitutako hezkuntza konpetentzia orokorren garapena bultzatuko dugu, hala nola, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea eta egiten eta ekiten ikastea, guztiak ere diziplina-esparru guztietan eta bizitzaren esperientzietan txertatuz, horrela, bizitzarako beharrezkoak eta ezinbestekoak diren oinarritzko konpetentziak lortzeko.

Marko orokor hauetatik abiatuta, hona hemen, definituak eta garatuak gure identitate oinarri eta curriculum printzipioak:

3.3.1.- ESKOLA BARNERATZAILEA EDO DENENTZAKO ESKOLA.

Ikastolak, gaur egungo euskal gizarteak ezaugarritzat dituen kulturantzatasunaren eta ugaritasunaren testuinguruan eta hori ugaltzeko dagoen joeraren aurrean, denentzako izango den eskola barneratzaile eta anitzarekin identifikatzen dira, Euskal Herrian presente dauden genero, balore, gizarte-portaera, portaera politiko eta erlijiosoak beren barne hartuko dituenarekin alegia eta eredu hori konpentsatzaile gertatzen da sortzen dituen ikasketa-zailtasunekiko, irekia jatorri, gizarte-maila nahiz ekonomia-maila desberdinetako pertsonentzat eta aukera-berdintasuna ziurtatzeko ahalegina egiten du, bertan dabilzan ikasleek, trinkotuta eta Euskal Herrian eta Europan txertatuta nahiz munduarekin harremanetan egongo den euskal gizartean bizitzen jakin dezaten.

3.3.2.- PERTSONA- ETA GIZARTE-EREDUA.

1. Hezkuntza-jardunbidearen helburua gizakiaren konpetentziak mailarik handienean garatzea lortzea dela ulertzen dugu, bere izaera hirukoitz eta bereiztezinean: norbanako subjektu gisa, gizarteko kide edo partaide gisa eta naturako partaide gisa. Ikuspegi horretatik esan daiteke, hezkuntzaren helburuak lortu izana adierazten duten parametroak, hau da, heldutasuna eta



bitzta betea bezalakoak, norbanako subjektu moduan konpetentzien garapenean lortutako mailak eta gizartearen garapenean eta hobekuntzan izandako txertakuntzak, identifikazioak eta elkarlanak nahiz natura zaintzeko eta berari eusteko egindako ekarpenak zehaztuta datozela.

2. Bizitza osorako hezkuntzaren ikuspegi integral hori erdiesteko asmoz, haurtzaro Ikastolak, Euskal Curriculumean definitutako hezkuntza konpetentzia orokorren garapena bultzatuko du, hala nola, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea eta egiten eta ekiten ikastea, guztiak ere diziplina-esparru guztietan eta bizitzaren esperientzietan txertatuz, horrela, bizitzarako beharrezkoak eta ezinbestekoak diren oinarrizko konpetentziak lortzeko, Europako Parlamentuaren gomendioetan definitutakoaren arabera.
3. Haurtzaro Ikastolak oinarrizko heziketa eta bizitza osorako prestakuntzaren oinarriak finkatuko ditu, pertsonaren garapen osoa besarkatuz, beste prestakuntza maila batzuetarako eta lan-mundurako sarbideak irekitzeko, eragile ekintzaileak eta profesionalak, ekonomikoak eta sozialak izateko, bere bizitza zentzuz bideratzeko, eta bere etorkizuna arduraz hautatzeko gai izan daitezen.
4. Zientzia-ezagutzen garapena eta tresna teknikoen ekoizpena, nahiz informaziorako eta ezagutzarako sarbidea indar handiko berrikuntza- eta aldaketa-elementu diren gizartean, Haurtzaro Ikastolak bere osotasunezko hezkuntzaren planteamenduan, Zientzien eta Teknologiaren nahiz IKTren esparruetan konpetentziak garatzea sartu beharrean dago, beti ere ikuspegi kritikoa landuz.
5. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko hezkuntzako elkarbizitzaren eredu baten oinarri gisa, eskubideetan genero-berdintasuna aldeztuko duten jarrerak eta portaerak bultzatuko dira.

3.3.3.- EUSKAL ESKOLA

4. Komunitate edo herri orok, bere kultura bere luze-zabal osoan gorde, bizi, birsortu eta garatzeko nahiz bere kideei familiaren, eskolaren eta gainerako hedabideen bitartez transmititzeko eskubidea eta betebeharra ditu. Ikastola-mugimendua, euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, erabilpen eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen eta hori du ezaugarritzat. Horrela, eta eskubide hori gauzatzen duelarik, beste kultura batzuei ere irekia, ukipeneko auzo-kulturei batez ere, kulturartekotasunezko hezkuntza-planteamenduak era osasuntsuan eginez eta gauzatuz.
5. Haurtzaro Ikastolak, euskal hizkuntza eta kultura erreferentzia-ardatz moduan hartuta, hizkuntzen eta kulturen ikuspegi integratzailea eragiten du eta hizkuntza- eta kultura-konpetentziak osagarritasun-ikuspegiarekin ulertzen ditu.
6. Haurtzaro Ikastolak, Euskararen Lurralde gisa hartzen du Euskal Herria, bere historia Pirineoen bi isurialdeetan hedatzen den mendebaldetik mugarik gabeko jendez osatutako espazio unibertsalera irekita ekarpen desberdinekin eraiki duen eta eraikitzen ari den lurraldetzat,



lehendik definitutako baina etengabe berritzen eta aberasten ari diren hizkuntza- eta kultura-arrasto berezietan oinarritua.

4. Gainera, bere hezkuntza-lana gauzatzeko, Haurtzaro Ikastolak, Euskal Herria izena, Euskaltzaindiak 2003. urteaz goerotik erabiltzen duen zentzu berean erabiltzen du, hots, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroak (Behereak eta Garaiak) eta Zuberoak osatzen duten lurralde-multzoa identifikatzeko.

3.3.4.- GARAPEN JASANGARRIA ZAIKTZEN DUEN ESKOLA

Haurtzaro Ikastolaren hezkuntza filosofiari helduz, ezin da ahaztu Ikastolak garapen jasangarriaz arduratzeko eta ikastolan lantzeko duen erantzukizunaz. Baliabideen urritasunaren kontzientzia hartu eta beraien erabilera osasuntsua bultzatzeko ideia berriak sortu behar ditugu. Komunitatearekin batera, ingurumenaren zaintzarekiko sentsibilitatea piztu eta hobetze-ekimenetan parte aktiboa izan behar du Ikastolak.

Gure bizitza-kalitatea mantentzeko eta, ez hipotekatzeko etorkizuneko belaunaldiak beraien beharrak asetzeko ezinbestekoak izango dituzten baliabideak, bide berriak asmatzen eta sortzen jarri behar gara.

2017an lortu du ikastolak eskola jasangarriaren ikurra.



3.3.5.- BIZIKIDETZA LANTZEN DUEN ESKOLA

Elkartasunean hezi nahi dugu, nork bere burua aintzakotzat jotzea, nork bere buruaz irudi baikorra izatea alegia, eta nork bere burua hobetzea gure asmo eta lehia bakarrak dira. Hezi nahi dugu gizabanakoon dibertsitate fisikoa, gaitasunezkoa, sexu-mailakoa, soziala, ekonomikoa, iritzi eta ideologikoa nahiz sinesmenari dagokiona onartuz, ulertuz eta errespetatuz. Dibertsitateak sortzen dituen gatazkak elkarrizketaz eta jarrera tolerantiaz bideratzeko ahalegin guztiak egin nahi ditugu. Giza eskubideen eta pertsonaren duintasunaren begirunean oinarritutako hezkuntzaren aldeko ahaleginak berresten ditugu, edozein xede edo egokieraren gainetik. Ikastolaren helburua da iraganean, orainaldian edo etorkizunean Giza Eskubideen urraketaren edozein justifikazioaren aurrean jarrera kritikoa indartzea. Eskubide horiek haustearen ondorio diren biktimekiko elkartasuna eta laguntza erakutsiko dituzten jarduerak sustatuko ditugu. Benetako bizikidetza demokratikoa sostengatuko duten balioak eta jarrerak indartu nahi ditugu, hezkuntza esparrutik hasi eta gizarte osoraino helduz.



3.3.6.- TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERA POSITIBOA SUSTATZEN DUEN ESKOLA

Eguneroko bizitzan IKTek duten presentzia eztabaida ezina da gaur egun. Komunikazioan, informazioa eskuratzeko, ordainketak egiteko, medikuaren zita eskatzeko, bizitzarako... *digital* hitzaren pisua nabarmena da.

Etorkizunari begira, IKTak ondo ulertzea eta erabiltzen jakitea estrategikoa dela deritzo Haurtzaro Ikastolak. Horregatik, Haurtzaro Ikastolak teknologia berrietan bete-betean murgiltzeko erabaki estrategikoa hartua du eta urratsak etengabe ematen ari da.

Ikasleen derrigorrezko irakaskuntzan, garatu beharreko oinarrizko kompetentzien artean, **IKTen oinarrizko kompetentziak** ziurtatzea lortu nahi dugu.

Horretarako, IKTak Hezkuntza Proiektuan eta Proiektu Curricularrean integratuak daude. Alde batetik, IKTek ikuspegi didaktikotik eskaintzen dituzten aukerak arakatu eta inplementatu ditugu, eta bestetik, ikasleak IKT tresnak autonomiaz erabil ditzaten alfabetatzen ditugu ikasleak.

Ikastolako administrazioan burutzen den kudeaketaz gain, beren eguneroko lanaren kudeaketa eta komunikaziorako, zein ikaslekiko eta gurasoekiko komunikaziorako, ezinbestekoak bihurtu dira ikt baliabideak irakasleentzat.

Hala, 2013-14 ikasturtean abiatu irakakas-ikasketa digitalak "Sare Hezkuntza Gelan" hezkuntza-berrikuntza proiektu barruan kokatu gaitu, eta IKT heldutasun maila aurreratuari begira lanean gabiltzan bitartean, maila ertaina egiaztatzerik izan dugu 2017an.



3.4 .- PROZESUEN KALITATEA BERMATZEKO PRINTZIOIA

3.4.1.- KALITATEAREN DEFINIZIOA:

Haurtzaro ikastolan honela ulertzen dugu KALITATEA:

Ikasleen garapen integrala, pertsona integrala, konpetentea, herrian txertatua eta lan munduan integratuko dena, euskalduna eta munduari irekia helburu nagusia izanik, Hezkuntza Komunitatearen etengabeko hobekuntza era eraginkor batez kudeatzea.

Horretarako ikastolako prozesuak definituak, neurgarriak eta Hezkuntza Komunitateak onartuak izan behar dute; horien bitartez beti ere Hezkuntza komunitateak ikastola proiektuarekin duen identifikazioa, inplikazioa eta partaidetza bultzatuz, eta Hezkuntza Komunitatearen errespetuzko giro ona, elkarbizitza proiektuan oinarritua, eta bere asebetetze maila ahalik eta altuena lortuz.

Hori aurrera eramateko gurasoekin elkarlanean arituko den langileria konpetentea eta estimatua, talde lanean oinarritutako lankidetzaz, errespetu, konfiantza eta ilusio giroan aritzen dena premiazkoa da.

3.4.2.- KALITATE EGITASMO INTEGRATUA (KEI), HAURTZARO IKASTOLAK AUKERATU DUEN KALITATE EREDUA:

Haurtzaro Ikastolak prozesuen eta pertsonen lanaren hobekuntzan oinarritutako erakundea bihurtzeko KEI egitasmoa aukeratu du, eredu honek hezkuntza eremuetan, kalitatea irizpideetan eta irizpide horiek ikastetxearen testuinguruan zehazten dituzten adierazleetan egituratua du bere aplikazioa.

Kei zazpi eremutan antolatua dago:

1. Erakundearen planteamendua
2. Antolakuntza egitura
3. Harreman eta elkarbizitza sistema
4. Tutoretza eta orientazioa
5. Curriculum
6. Familia eta ingurua
7. Administrazioa eta zerbitzuak

Kalitate Egitasmo Integratua
 Proyecto de Calidad Integrado
 Integrated Quality Project



Eremu guztietan kontuan hartzen dituen printzipioak hauek dira:

- 1.- Pertsonen satisfazioa
- 2.- Hezkuntza jarduera guztiak ikasleari pertsona den aldetik zuzentzea.
- 3.- Inplikazioa
- 4.- Aitzindaritza konpartitua, eskolaren hobekuntzan konprometitua.
- 5.- Ebaluazioa
- 6.- Eraginkortasuna eta emaitzak

2017an KEI kreditazioa lortu dugu, auditoriara aurkeztu eta gainditu ondoren.



4.- HEZKUNTZA EREDUA

“Hezkuntza ereduaz” aritzean, Oinarrizko Hezkuntza bukatzen denean zer-nolako ikasle mota espero den (irteera profila), irakaslearen profila eta familia eta gizarte hezitzailearen eragina definitzen dira.

4.1.-. IKASLEAREN IRTEERA PROFIL OROKORRA

4.1.1- TESTUINGURUA ETA GIZARTEAREN BEHARRAK

Ikasleak ingurune naturalari, soziokulturalari, teknologiko-zientifikoari eta hizkuntza-inguruneari eta haien dimentsio historikoei eta etikoei dagokien oinarrizko ezagutza jasotzea da ikaslearen irteera profila osatzen duten funtsezko elementuetako bat. Kultura-ondarea osatzen duten jakintzen transmisioa oinarrizko hezkuntzaren funtsezko funtzioa da; izan ere, aukera ematen du pertsonak unean unekoa zentzuz bizitzeko eta etorkizuna eraikitzeko, pertsona horrek munduan duen lekutik beretik. Kultura-ondarearen transmisio hori osatzen da subjektua etorkizuneko behar eta erronkekin bat egin duten errealitate-forma berriak sortzen eta eraikitzen hasten denean, nola euskal gizartearenak hala globalak.

Testu ingurua eta gizartearen beharrak aurrera eramateko, sei atal nagusiok aurreikusten ditu Haurtzaro Ikastolak:

□ **Ingurune naturala**

Honako gai hauei buruzko oinarrizko jakintzak ezagutzen eta erabiltzen ditu: materia, kosmosa eta lurra, bizitzaren eta bereziki giza espeziearen ezaugarriak. Ikasleak naturaren eta bizitzaren partaide dela sentitu behar du, baita ekosistema osasuntsu bat mantentzeko ardura duela ere.

□ **Ingurune teknologiko-zientifikoa**

Arraznamendu matematikoa, zientziaren ezagutzak, metodologia eta aplikazio teknologikoak, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eroso eta erantzukizunez erabiltzen ditu eguneroko bizitzako eremuetan eta egoeretan.

□ **Ingurune soziokulturala**

Euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren ondareen oinarrizko jakintza eta trebetasunak kritikoki erabiltzen eta estimatzen ditu. Partaide den komunitateko kide sentitzen da, eta, bere jatorria zein den jakitun izanik, munduko hiritartzat jotzen du bere burua.

□ **Dimentsio historikoa**

Iraganean eta orain, Euskal Herrian, beste lurralde batzuekin interdependentzian, bizitzako egoera eta beharrei emandako konponbideen ikuspegi eta zentzu historikoa du, bai eta euskal gizarteak eta gizarteak, oro har, dituen etorkizuneko erronken perspektiba ere.



□ **Dimentsio etikoa**

Giza eskubideetan oinarrituz, norberaren bizitza pribatua eta soziala burujabetasunez eta zentzuz bideratzeko, eta izadia, gure ama lurra, errespetuz zaintzeko eta jarraipen iraunkorra ziurtatzen eragiteko oinarriak ditu.

□ **Hizkuntza-ingurunea**

Euskaraz eta beste hizkuntza ofizial batean (gaztelania-frantsesa) ahoz eta idatziz sortutako testu eta mezuak zuzen, autonomiaz eta sormenez ulertzen eta adierazten ditu, baita gutxienez nazioartean erabiltzen den beste hizkuntza batean ere.

4.1.2.- PERTSONEN BIZITZA EREMUAK ETA EGOERAK

Oinarrizko hezkuntzaren helburua bizitzarako prestatzea da baina bizitzarako prestatzeko moduak ez du zertan bera izan behar Oinarrizko Hezkuntza osoan. Hasteko, mundua ulertzeko modua ez delako bera Haur Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, eta, horregatik, interesguneak eta ikasketa-egoerak ezin dira berdinak izan.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako aldian, funtsean, bizitza ikasgelan eta haien ingurune hurbilean gertatzen dena da. Hau da, ikasleen bizipenak haien behar, interes eta esperientziekin lotuta daude, baina ez dute, horregatik, amaierako egoeren perspektiba galtzen.

Oinarrizko Hezkuntzan aurrera egin ahala, modu esanguratsu eta motibagarrian gehitzen joango dira modu pragmatikoagoan heldutasuneko bizitzarako prestakuntzarekin lotura duten egoerak.

1. Eremu pertsonala

a) Eremu **pribatuko** egoerak:

- **Eguneroko bizitza:** Eguneroko bizitza pertsonalarekin, familia-bizitzarekin, komunitateko bizitzarekin eta oinarrizko beharrek lotura duten arazoak konpontzeko trebezia eta abiltade teknikoak eta instrumentalak dauzka.
- **Bizitza ludiko-estetikoa:** Arte plastikoak, dantza, musika, jolasak, literatura... praktikatzen ditu, eta haietaz gozatzen du.
- **Bizitza afektibo-emozionala:** Autokontrola eta oreka emozionala, autoestimua, autonomia eta sentsibilitate estetikoak ditu.

b) Eremu **publikoko** egoerak:



- **Bitza soziala:** Taldean bizi da eta taldean lan egiten du, modu aktibo eta arduratsuan, eta bere eskubide eta betebeharez jabetzen da.

c) **Naturaren** eremuko egoerak:

- **Bitza fisiko eta naturala:** Bere gorputza zaintzen du, eta ohitura osasuntsuak ditu. Kosmoseko eta lurreko partaidetzat ikusten du bere burua, eta natura eta ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko ohiturak ditu.

2. Eremu akademikoa eta lan-eremua

- a) **Bitza akademikoa:** Prest eta gogotsu dago ikasketei eta geroko prestakuntzari ekiteko.
- b) **Lan-bitza:** Ideiak ekintza bihurtzeko gaitasuna ematen dioten ezaugarri pertsonalak eta sozialak ditu, baita kudeaketari dagozkionak ere.

4.2. IKASTOLAKO IRAKASLEEN PROFIL PROFESIONALA

Hautzaro Ikastolan euskara denez hizkuntza nagusia eta ikuspegi eleaniztunaren ardatz, ikastolako irakasleak maila altuko hizkuntza-eskakizuna bete behar du, euskararen erabileran, ofiziala den (beste) hizkuntzaren erabileran eta, bere betebehaz didaktikoek hala eskatzen badute, hirugarren hizkuntza baten erabileran ere.

Era berean, prestakuntza eta jarrera egokiak behar ditu ikasleek oinarrizko konpetentziak gara ditzaten laguntzeko, curriculumeko arloen bidez eta ikastola-bitzizatik kanpoko egoeretan eta eremuetan.

Azkenik, familien, ikasleen eta gizartearen espektatibak kontuan hartuko ditu, eta ikastola-eredua etengabe hobetzen lagunduko du.

KEI 7. Eremuan zehaztasunez jasoak daude irakaslearen profil profesionalak.

4.3.- FAMILIA ETA GIZARTE HEZITZAILEEN ERAGILE EREDUA

Gurasoak dira seme-alaben legezko hezitzaileak eta irakasleekin BATERA, bakoitza bere eginkizun propioetan, ikaslearen nortasuna osatzeko lagunduko dioten GIRO EGOKIA LORTU BEHAR DUTE.

Ikaslea, gizarteko talde desberdinen partaide izaten, sentiarazten, ahaleginduko da familia. Gela, lagun eta herriaren partaide izaten. Bestalde, ikasle batek beti aurkitu beharko luke bere adierazpenak egiteko konfiantzazko giroa guraso eta irakaslearen artean.



Guraso eta irakasleen harremanak heziketa arazoetan irekiak eta orekatuak izango dira, elkar oztopatu gabe eta leialak eta eginzaleak, azken batean, ikaslearen heziketa jokatzen baita. Beraz, arrazoiketa eta elkarrizketa eta elkarlana izango dira oinarri eta ez nagusikeriak.

Guraso eta irakasleek, seme-alaben heziketari dagozkion erabakiak hartzerakoan, hauen asmoak eta iritziak hartuko dituzte kontuan.

4.4.- HEZKUNTZA XEDEA

A. Bizitza guztirako hezkuntzaren xedea.

Euskal Curriculumean, hau proposatzen da bizitza guztirako hezkuntzaren helburutzat:

“Norberaren, gizartearen eta naturaren errealitateak kritikoki ulertzeko, horietan eraginkortasunez ekiteko eta arduraz eraldatzeko baliabideak ematean datza hezkuntzaren xedea, era horretara, pertsonak, gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik eta konpetentzia gehien gara dezaten”.



Hautzaro Ikastolak giza garapen handiena lortzen laguntzen die bere ikasleei.

Norbanako edo izaki gisa; horrek, ikasle bakoitza, besteekin batera bere biografia eraikitzen duen subjektu autonomo moduan identifikatzea eskatzen du.

Gizarteko kide gisa; horrek, ikasle bakoitza, kulturantzatasuneko marko batean euskaldun legez identifikatzea eskatzen du.

Naturako partaide gisa; horrek, ikasle bakoitza, kosmosaren eta luraren barruan giza espezieko partaide eta izaki bizidun legez identifikatzea eskatzen du.

B. Hezkuntzaren xedek Oinarrizko Hezkuntzaldirako:

Oinarrizko Hezkuntzaldia, bizitza guztirako den hezkuntzaren derrigorrezko etapa komuna da eta giza nortasunaren garapen betea iristeko xede hauek ditu:

Ikasleak unean-uneko egoerei egoki erantzuteko eta helduen bizitzan sartzeko eta norbanako subjektu moduan osotasunezko bizitza bizi ahal izateko, gizartearen partaide eraginkor diren herritar izateko eta natura gorde eta garapen eutsigarria gauzatzeko konprometitutako pertsonak izateko gai izan daitezen prestatzea da.

Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak berenganatzea lortzea eta ondorengo ikasketak egitera joateko nahiz lan-munduan sartzeko behar den bermearekin prestatzea da.

Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak berenganatzea lortzea eta ondorengo ikasketak egitera joateko nahiz lan-munduan sartzeko behar den bermearekin prestatzea da. Ikasleak sentiberatu eta gaitu beren bizitza osoan zehar ikasketak iraunkorki eta etengabe egiteko eta garatzeko gai izan daitezen.



4.4.1.- OINARRIZKO KONPETENTZIAK: OROKORRAK ETA ARLOKOAK


Europako Parlamentuak eta Kontseiluak (2006) zortzi oinarrizko konpetentziak edo gako gomendatzen ditu bititza osorako hezkuntza iraunkorra bultzatzeko asmoz:

1. Ama-hizkuntzan komunikatzea;
2. Hizkuntza arrotzetan komunikatzea;
3. Matematika-konpetentzia eta Zientzia- eta Teknologia-arloko oinarrizko konpetentziak;
4. Konpetentzia digitala;
5. Ikasten ikastea;
6. Gizarte-konpetentziak eta gizabide-konpetentziak;
7. Ekimen-zentzua eta enpresa-espirtua;
8. Kultura-kontzientzia eta kultura-adierazpena.

Espanian LOEk (2006) eta Frantzian LOk (2005) ezarritako araudiak oinarrian bat datoz nagusiki europar gomendioarekin.

Ikastolek oso baikorki baloratu dute “**Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum**” deituak egindako proposamena. Proposatzen diren hezkuntza-konpetentzia orokorrak hauek dira: ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea, egiten eta ekiten ikastea.

Hezkuntza-konpetentzia orokorrak, irudian ikusten den moduan, bitartekari dira alde batetik hezkuntza-helburuen lorpenean, eta bestetik ikasgai guztietan sartu behar diren prozedura- eta jarrera-eraketan eragingarri bihurtuta, Europako Parlamentuak gomendatu eta Espainiako eta Frantziako araudiek ezarritako zortzi oinarrizko konpetentziak lortzea ahalbidetzen da.



Oinarrizko konpetentziak dira bizitzako eremu eta egoeretan moldatzeko ezinbestekotzat jotzen direnak. Oinarrizko konpetentzien artean, batetik, **oinarrizko konpetentzia orokorrak** daude, ikasgai guztientzat berak direnak eta eremu eta egoera guztietarako balio dutenak, eta, bestetik, **oinarrizko konpetentzia espezifikoak**, ikasgai eta eremu zehatzagoekin lotura dutenak, eta testuinguru espezifikoagoetan aritzeko beharrezkoak direnak. Oinarrizko konpetentzia espezifikoek dagozkien eduki zehatzekin integratuta ikasten dira oinarrizko konpetentzia orokorrak. Oinarrizko konpetentziak dira, beraz, curriculum eremuetako oinarrizko konpetentzia espezifiko guztietan eta haietako bakoitzean oinarrizko konpetentzia orokorrak integratzearen emaitza.

4.4.2.- OINARRIZKO KONPETENTZIA OROKORRAK, METADIZIPLINARRAK ETA ARLOKOAK

Oinarrizko konpetentziak dira bizitzako eremu eta egoeretan moldatzeko ezinbestekotzat jotzen direnak. Oinarrizko konpetentzien artean, batetik, **oinarrizko konpetentzia metadiziplinarrak** daude,




ikasgai guztientzat berak direnak eta eremu eta egoera guztietarako balio dutenak, eta, bestetik, **arlotan oinarritutako konpetentziak**, ikasgai eta eremu zehatzagoekin lotura dutenak, eta testuinguru espezifikagoetan aritzeko beharrezkoak direnak. Arlotan oinarritutako konpetentziei dagozkien eduki zehatzekin integratuta ikasten dira oinarritutako konpetentzia metadiziplinarrak. Oinarritutako konpetentziak dira, beraz, curriculum eremuetako arlotan oinarritutako konpetentzia guztietan eta haietako bakoitzean oinarritutako konpetentzia metadiziplinarrak integratzearen emaitza.

4.4.2.1.- OINARRITUTAKO KONPETENTZIA METADIZIPLINARRAK

Oinarritutako konpetentzia metadiziplinarrak erreferentziako ardatz nagusia dira nola oinarritutako hezkuntzarako hala bizitza osorako hezkuntzan, eta hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dira, bai testuinguru formaletan bai eta informaletan ere.

Konpetentzia horiek arlotako oinarritutako konpetentzietan eta eguneroko bizitzako eskolaz kanpoko egoera informaletan integratuz ikasten dira.



1.- Ikasten eta pentsatzen ikastea

- Modu esanguratsuan interpretatzen du informazioa (pentsamendu ulerkorra), informazioa sortzen du (sortzeko pentsamendua) eta informazioa modu kritikoan ebaluatzen du (pentsamendu kritikoa).
- Baliabide kognitiboak erabiltzen ditu, hala nola metakognizioa, jokabidearen erregulazioa, jokaera estrategikoa, eta ikasitakoa beste egoera batzuetara eramaten du.

2.- Komunikatzen ikastea

- Ahoz eta idatziz jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez komunikatzen da.
- Modu integratu eta harmoniatzuan erabiltzen ditu hitz gabeko hizkuntzaren, hizkuntza artistikoaren eta hizkuntza matematikoaren oinarritutako kodeak.
- Gizarteko komunikabideak modu eraginkor eta autonomoan erabiltzen ditu.
- Tresna eta baliabide teknologikoak (IKT) trebezia, arduraz eta modu kritikoan erabiltzen ditu.
- Euskal gizarteko eta munduko errealitate sozio-komunikatiboa modu kritikoan interpretatzen du, eta modu arduratsuan eta zentzu etikoz parte hartzen du inguruko komunikazio-prozesuetan.



3.- Elkarrekin bizitzen ikastea

- ❑ Besteekin interakzio positiboa mantentzen du arreta jarriz eta entzuteko jarduera aktiboa hartuz; enpatia erakusten du, behar duenari lagunduz, eta hitzarmen eta arau sozialak betez.
- ❑ Indarkeria erabili gabe irtenbideak aurkitzen ditu elkarriketaren eta negoziazioaren bidez.
- ❑ Modu aktiboan parte hartzen du eskolako testuinguruan eta handik kanpora.
- ❑ Pertsonekin taldean lan egiten du, elkarlanaren bidez partekatutako eginkizunetan helburu komunak lortzeko.
- ❑ Ezberdinak diren eta ezberdin pentsatzen duten pertsonak onartzen eta errespetatzen ditu.

4.- Norbera izaten ikastea

- ❑ Emozioak kontrolatzen ditu, eta jokabideak erregulatzen ditu lortu nahi dituen helburuetara bideratuz.
- ❑ Autoestimua baikorra eta errealista du, bere buruarengana konfiantza eta besteengandik estimatua eta balioetsia sentitzean oinarrituta.
- ❑ Bere kasa pentsatzeko, erabakitzeko eta jarduteko autonomia du, eta hartutako erabakien ardura bere gain hartzen du.


5.- Ekiten eta egiten ikastea

- ❑ Informazioa jasotzen eta ulertzen du, eta gogoeta egiten du inguratzen duen errealitateaz.
- ❑ Ideia eta irtenbide berriak bilatzen ditu, eta errealitatea hobeto planteatzen du, gaur egungo errealitateari dagokionez alternatibak proposatuz.
- ❑ Proposatutako errealitatea gaur egungo errealitatearen alternatiba gisa gauzatzeko beharrezko ekintzak egiten ditu.
- ❑ Egindako ekintzek sortzen duten benetako inpaktua ebaluatzen du.
- ❑ Horren guztiaren helburua da ekintzaile-prozesuarekin jarraitzea (prozesu jarraitua).

4.4.2.2.-ARLOETAKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Dagozkien diziplina-eremu bidez lortzen dira oinarrizko konpetentzia espezifikoak, modu diziplinatuan, diziplina artekoan edo globalizatuan, eta eremu horietan oinarrizko konpetentzia orokorrak txertatuta.

Hezkuntza-konpetentzia metadiziplinarrak, irudian ikusten den moduan, bitartekari dira alde batetik hezkuntza-helburuen lorpenean, eta bestetik ikasgai guztietan sartu behar diren prozedura- eta jarrera-edukietan eragingarri bihurtuta, Europako



Parlamentuak gomendatu eta Espainiako eta Frantziako araudiek ezarritako zortzi oinarrizko kompetentziak lortzea ahalbidetzen da.

Arloko oinarrizko kompetentziak zehazteko, hauxe da funtsezko galdera: zein ekarpen egiten du arlo edo gai bakoitzak, ikasleak une honetako bizitzako interes eta oinarrizko beharrei erantzuteko eta helduaroan garrantzitsutzat jotzen diren jarduera-eremu eta egoeretan moldatzeko prest egon dadin?

1.- Hizkuntzak eta Literatura: Hitzezko eta literaturazko kompetentzia komunikatiboa

Ikastolen Taldeak onartutako hizkuntzekiko lortu beharreko kompetentzia mailaren arabera, ikaslea gai da, euskaraz (B2), beste hizkuntza ofizialean (gaztelania edo frantsesa) (B2) eta nazioarteko komunikaziorako hirugarren hizkuntza batean (B1) bere bizitzako eremuetan, egoera bakoitzak eskatzen duen ahazko zein idatzizko hizkuntzaren erabilera egokia eta eraginkorra egiteko. Era berean, badu kultura literarioa, Euskal Herrikoa nahiz unibertetsala, inguratzen duen mundua eta bere burua hobeto ulertzen lagunduko diona.

2.- Matematika: matematika-kompetentzia

Ikaslea, herritar arduratsu gisa, gai da matematikak gizartean duen funtzioa identifikatzeko, ulertzeko eta ezagutza matematikoa erabiltzeko, oinarri sendoko arrazoiketak eraikiz eta matematikaren berariazko pentsamendu eta adierazpen moldeak erabiliz, haren bizitzako beharrei erantzun eta arazoei irtenbidea eman ahal izateko.

3.- Teknologia: teknologia-arloko kompetentzia

Ikaslea gai da teknika eta ezagutza zientifikoak zentzuz eta arduraz praktikara eramanez, arazo praktikoei irtenbidea emateko eta gizakion behar eta desirak asetzeko bizitzako hainbat eremu eta egoeratan.

4.- Musika eta Dantza: arte-komunikaziorako kompetentzia

Ikaslea gai da adierazteko eta komunikatzeko eremu eta egoera egokietan musikako eta dantzako ezagutzak eta metodologiak erabilia, bere buruarekin, ingurune sozialarekin eta natura-ingurunearekin gozatzeko eta harmonian bizitzeko.

5.- Plastika eta Ikus adierazpena: arte-komunikaziorako kompetentzia

Ikaslea gai da bere bizitzako eremuetan egoera bakoitzak eskatzen duen hizkuntza plastikoaren eta bisualaren erabilera egokia eta sortzailea egiteko, eta besteen adierazpen artistikoak arrazoituz interpretatu eta balioesteko, hartara bizitzako errealitateari buruzko norberaren ikuspegia, ideiak, sentimenduak sormenez adierazteko eta bestei komunikatu ahal izateko eta, era berean, edertasunaz gozatzeko.



6.- Gorputz Hezkuntza: gorputz-komunikaziorako kompetentzia

Ikaslea, duen jokabide motorrarekin, bere buruarekin, inguru sozialarekin, kulturalarekin eta fisikoarekin oreka bilatzeko gai da.

7.- Gizarte Zientziak: gizarte-kompetentziak eta gizabide-kompetentziak

Ikaslea gai da bere bizitzako eremuetan eta egoeretan gizarte zientzietako ezagutzak eta metodologiak erabiliz, bere burua, kide den taldea eta bizi den mundua ulertzeko, eta horren ondorioz, hiritar arduratsu moduan gizarte demokratiko eta anitz baten alde aritzeko.

8.- Natura eta Osasun Zientzia: zientzia-arloko kompetentziak

Ikaslea gai da bizitzako hainbat eremu eta egoeratan, ezagutza eta metodologia zientifikoa erabiliz, bere burua eta natura ulertzeko, eta bere buruari buruz eta giza jokabideak mundu naturalean eragiten dituen aldaketei dagokionez erabaki arduratsuak hartzeko.

9.- IKT kompetentzia komunikatiboa

Ikaslea gai da, bere bizitzako eremuetan, egoera bakoitzak eskatzen duen IKT baliabideen erabilera egokia, eraginkorra eta arduratsua egiteko: informazio kudeatzeko, elkarlanean aritzeko, ekintzaile izateko eta horrekin guztiarekin ezagutza sortu eta partekatzeko.

10.- Tutoretza eta Orientazioa

Ikaslea gai da erabakiak hartzeko eta bere bizitza zentzuz bideratzeko, bere ibilbidea aukeratzeko eta egindako aukeren ardura izateko, bizitzako hainbat eremu eta egoeratan, eta, bereziki, gai da bere interes eta gaitasunekin bat datorren aukera akademikoa edo lan-aukera zein den erabakitzeko, ohartuki, bere burua eta errealitatea ezagututa.

4.4.2.3.- ARLO GUZTIETARAKO METODOLOGIAREN ARDATZAK

Irakasteko metodologia, ikaslearen ikaskuntza prozesua ondo bideratzeko aukeratzeko den bidea edo estrategia dela esan dezakegu. Bide edo estrategia horren hautaketa eragile askoren baitan dago. Adibidez, hezkuntza-xedeek, ikaskuntza-teoriek, ikas-arloaren ezaugarriek, eduki-motaren tipologia (kontzeptuzkoa, prozedurazkoa, jarrerazkoa), ikasten duen subjektuaren ezaugarriek, irakasten duen irakaslearen ezaugarriek, eskura ditugun bitarteko eta materialen ezaugarriek, antolamendu-baldintzek eta abarrek, bakoitzak bere aldetik, ikasteko metodologia eragiten eta baldintzatzen dute. Ikasteko metodologia hautatzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko erabakirik konplexuena da, aipatu ditugun aldagai guzti horietaz ondo jabetuz, sintesi praktikoa eginez, irakasteko bidea hautatzea eskatzen duelako.



4.4.2.3.1.-Arlo bakoitzerako baliagarria den metodologia

Irakasteko metodologia ulertzeko era horretan oinarrituz, lehen ondorioa da irakasteko metodologia egokiak ikaslearen irteera profil orokorraren osagaiak uztartu behar dituela. Ikas arlo bakoitzak, arlo bakoitzaren ezaugarrien arabera, erantzun behar dio ingurunearen eta gizartearen beharrei, arlo horri dagokion ikuspegi historikoa eta etikoa uztartuz, arlo horretako bizitzako eremu eta egoera esanguratsuetan aplikatuz, aurre ikusitako hezkuntzaren xedeak eta oinarrizko kompetentziak eskuratzeko. Ikas arlo bakoitzak izan behar du irakasteko eta ikasteko berariazko metodologia edo bidea.

4.4.2.3.2.- Arlo guztietarako baliagarria den metodologia

Ikas arlo bakoitzak, esan bezala, izan behar du bere berariazko metodologia edo ibilbidea, baina badira arlo guztietarako baliagarriak diren metodologiaren norabide komunak. Norabide horien artean, Euskal Curriculumaren garapenerako lehenesten den kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegiaren ildotik, bi azpimarratzen ditugu: integrazio pedagogiaren eta oinarrizko kompetentzia metadiziplinarren arabeko metodologiak.

□ **Kompetentziak eta oinarrizko kompetentziak garatzeko hezkuntza**

Oinarriko Hezkuntzaren asmo nagusia ez da informazioa eta ezagutzak transmititzea, oinarrizko kompetentziak, hau da, bizitza osorako oinarrizkoak, garrantzizkoak eta ezinbestekoak izango diren kompetentziak eskuratzeko baizik. Kompetentzia izatea, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez aritzeko gaitasuna dela esaten badugu, logikoa eta koherentea da pentsatzea, kompetente izaten ikasteko, **egoerak, proiektuak, problemak, zereginak** behar direla, eta beroriek testuinguru problematiko errealean, esanguratsuetan eta egokietan egon behar dutela kokatuta; hau da, hezkuntza-xedeak eta aurre ikusitako ikaslearen irteera-profila lortzen lagundu behar dute. Horretarako, ezinbestekoa da informazioa eta ezagutzak eskuratzeko, baina ez da nahikoa, beharrezko da egoera bakoitzaren ezaugarrien arabera, informazio eta ezagutzak modu integratu batean mobilizatzen eta transferitzen ikastea. Lan mota horrek hartzen dituen formen artean ezagunak dira, besteak beste, proiektuetan oinarritutako pedagogia, problemen ebazpenean oinarritutako ikaskuntza, kasuen azterketa, ikasketa kooperatiboa, hitzarmenean oinarritutako ikaskuntza, etab.

Ezagutzen erabileraren garrantzia azpimarratzeak ez du esan nahi Oinarrizko Hezkuntzak lortu beharreko kompetentziak planteamendu utilitarista batera murriztu behar direnik, edota ikaskuntzak, euskal kultur ondare partikularren eta unibertsalaren birlantze eta transmisioak, duen garrantzia gutxitu behar denik. Badira zenbait ezagutza, esperientzia, sentimendu eta jarrera garen bezalakoak egiten gaituztenak, gure bizitzarako garrantzi handikoak direnak, gure burua, gizartea eta natura ulertzeko baliagarri zaizkigunak eta bizitzako egoeretan aplikazio zuzena ez dutenak. Pentsamendua eta izaera osatzen duten ezagutza hauek, egiteko moduan islatzen dira eta egiten denari zentzua emateko balio dute.



□ Integrazioaren pedagogia

Integrazio pedagogiaren ezaugarri nagusia, ikaslearen irteera profila oinarritzat hartuz, egoera esanguratsuetan eta arazo konplexuen aurrean ikaslea jartzea da. Ikasleak, arazo horri irtenbide egokia emateko, ikasitako guztia (kontzeptuzko ezagutzak, egiteko prozedurak, barneratutako jarrerak), era pertsonalizatuan eta integratuan mobilizatzen eta transferitzen asmatu behar du.

Ez dago arazo guztiak ebazteko era bakarra, horregatik, integrazioaren pedagogiak ez da oinarritzen ikasteko teoria edo paradigma bakarrean, aitzitik, egoera bakoitzaren ezaugarrien araberrako metodologia egokitua erabiltzea sustatzen du. Hala ere, Euskal Curriculumaren garapenerako, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen ikuspegi sozio-erakitzailea **lehenesten da**. Lehenesteak esan nahi du ikuspegi sozio-erakitzailea izango dela erreferentzia nagusia, baina era osagarrian beste ikuspegiak ere erabiliko direla.

5.- ANTOLAKETA ETA GOBERNU EGITURA

Ikastetxe batek dauzkan helburuak eta eginkizunak bete ditzan, beharrezkoa du egitura eta funtzionamendu eragile batez hornitzea, hots, GESTIOAREN BEHARRA dauka.

Gestio hau, ikastolaren ondorengo zereginetan oinarritzen da:

1. Giza baliabideak –irakasleen Etapa desberdinekiko kokatze egokiak, berauen prestakuntza, espezialitateak...– eta materialak –instalazio egokiak, zerbitzu osagarriak, hezkuntza baliabide aproposenak...– planifikatu eta kudeatu egin behar dira norabide bati jarraituz, finkatzen ditugun helburuak astiro-astiro lor ditzagun.
2. Gidaritza bat behar dugu helmuga eta helburuak egitaratzeko, errekursoak bideratu eta banatzeko, pertsonak eta funtzioak koordinatzeko, lortu nahi ditugun helburuen erdiespenean amaituko den lan batean animatuz eta motibatuz.
3. Ebaluazioa eta kontrola ere behar ditugu, erabili ditugun baliabideek finkaturiko norabideari jarraitzen dioten edo ez, edota zein neurritan; eta ezarritako helburuak lortzen ditugun edo ez, edota zein neurritan betetzen ditugun egiaztatzeko.

Zeregin hauetatik, beraz, bi gestio-maila bereiz genitzake:

1. Ikastolaren GOBERNU GESTIOAREKIN zerikusia duten eginkizunak:
 - ❖ Norabidea, helmuga, helburuak.
 - ❖ Egitasmoen onespeneak, norabidea, helmuga eta helburuei dagozkienean.
 - ❖ Egitasmoen burutze, kontrol eta ebaluazioa.



2. Ikastolaren FUNTZIONAMENDU GESTIOAREKIN zerikusia duten eginkizunak:

- ❖ Egitasmoen antolaketa.
- ❖ Egitasmoak lantzea.
- ❖ Azken batean, ikastolako pedagogia, eta ekonomia-administrazio arloen garapena.


Dena den, bi gestio hauek, gestio orokor baten azpi-gestioak baino ez dira, zeren beren egitekoa prozesu bat bakarria eratzen duten jardueren bidez garatzen baita.

5.1.- HAURTZARO IKASTOLA KOOPERATIBAREN EGITURA ETA GOBERNU GESTIOA

Ondorengo azalpenen dokumentu osatua Hezkuntza Proiektu honen eranskin modura gordeko da.

5.1.-ERAKUNDE ARAUBIDEA: BAZKIDEAK

a)Bazkide mota



b) Bazkide mota bakoitzaren ezaugarriak

- Zuzeneko bazkide onuradunak hauek izan daitezke:
 - Seme-alabak Ikastolan dituzten guraso, ordezkari edo tutoreak.
 - Adin nagusiko ikasleak.- Egoera hau estatutuetan jasoa dago, baina gaur egungo gure hezkuntza eskaintza dela-eta ez da gauzatuko.
- Lan bazkideak izateko baldintzak:
 - 16 urte baino gehiago izatea.
 - Probaldi bat gainditzea: gutxienez sei hilabete eta gehienez ikasturte bati dagokion epea.
- Laguntzaileak hauek izan daitezke:
 - Edozein pertsona fisiko edo juridiko, hau da: edozein enpresa, erakunde publiko, guraso edo ikasle ohi.
 - Batzar Nagusian boto guztien %5 izango dute.
 - Kontseilu Errektorean ordezkari bat izan dezakete, hitzarekin baina botorik gabe.
- Ez-aktiboak:
 - Gutxienez lau urteko antzintasuna duten, eta bidezko arrazoi baten ondorioz, kooperatiban lan egiteari behin-betiko uzten dioten lan bazkideak; eta bazkide onuradunak, haien seme-alabek ikastola uzten dutenean.
 - Batzar Nagusian boto guztien %5 izango dute.
 - Kontseilu Errektorean ordezkari bat izan dezakete, hitzarekin baino botorik gabe.

c) Bazkideen onarpena.

- Kontseilu Errektoreak dauka bazkideak onartzeko ahalmena.
- Bazkide bat ez onartzeko erabakia, bidezko arrazoi batean bakarrik oinarritu daiteke. Besteak beste:
 - Kooperatibaren zerbitzu gaitasuna.
 - Langileen kasuan, probaldiaren ondoren egokia ez dela ikusten bada.
- Erabakiaren aurka errekurtsoa jar daiteke Errekurtso Batzordearen aurrean.

d) Bazkideen betebeharrak eta eskubide orokorrak:



BETEBEHARRAK	ESKUBIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> • Batzar Nagusietara eta, deitzen bazaie, beste organoen bileretara joatea. • Karguak onartzea, horretarako aukeratzeko badituzte, ez onartzeko bidezko arrazoiak dituztenean salbu. • Bazkide izatearen ondoriozko betebeharrak ekonomikoari erantzutea. • Bazkide laguntzaileen kasuan, langile edo erabiltzaile gisa, kooperatibaren helburu diren hezkuntza-ekintzetan parte hartzea. • Kooperatibaren barnean giro egokia eta elkarbizitza begirunetsua sortzen laguntzea. • Kooperatibaren helburuekiko lehian egon litekeen ekintzarik ez egitea, administratzaileek bereziki baimentzen ez badute behintzat. • Legezko arauen eta estatutu hauen ondoriozko izan litezkeen beste guztiak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kooperatibako karguetarako aukeratzeko eta aukeratuak izateko eskubidea. • Batzar Nagusian eta beraiek osatzen dituzten beste organo guztietan akordioak hartzerakoan, proposamenak formulatu eta hitz eta botoarekin esku hartzeko eskubidea. • Kooperatibako ekintza eta zerbitzuetan esku hartzeko eskubidea. • Dagozkien eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko beharrezko informazioa jasotzeko eskubidea. • Sozietateko kapitalera egindako ekarpenak eguneratu eta, bere garaian, berreskuratzeko eskubidea. • Legezko arauen eta Estatutu hauen ondoriozko izan litezkeen beste guztiak. • Informazioa eskatzeko eskubidea.

e) Borondatezko baja

- Bazkide orok eska dezake borondatezko baja.
- Borondatezko baja eskatzen duena lan bazkidea baldin bada, Kontseilu Errektorearen erabakiz, ikasturtea bukatu arte kooperatiban jarraitzea exijitu ahal izanago zaio.

f) Derrigorrezko baja

- Bazkideak estatutuetan eskatzen diren baldintzaren bat betetzeari uzten badio, Kooperatiban baja izango da.
- Kontseilu Errektoreak du erabakia hartzeko ahalmena.
- Bazkideak Batzar Nagusira jo dezake, Kontseilu Errektorearen erabakiarekin ados ez badago.

g) Kooperatibako bazkideentzat diziiplina araubidea.


Estatutuetan modu zehatzean jasotzen dira:

- Bazkideen hutsegite motak: arinak, larriak eta oso larriak.
- Hutsegite bakoitzari dagozkion zehapenak.
- Zehapen-prozedura.
- Bazkideak kanporatzea.

5.1.1.-GOBERNU EGITURA

Hautzaro Ikastola Kooperatibako antolaketa organikoa ondorengoa da:





5.1.1.1- BATZAR NAGUSIA

Ikastolako bazkide onuradunek (gurasoek), lan bazkideek (langileek), bazkide ez aktiboek eta bazkide laguntzaileek osatzen dute Batzar Nagusia.

Ohiko Batzar Nagusia urtean behin egiten da, Estatutuak zehazten duten epearen barruan.

Batzar Nagusia: Ikastolako organo gorena da. Berak erabakitzen ditu Ikastolaren funtsezko izaera, nortasuna eta bilakaera.

- Motak:
 - Ohikoa:
 - Nork deitzen du: Kontseilu Errektoreak.
 - Noiz: * Urtean behin egin behar da.
 - * Ekitaldi soziala itxi ondorengo 6 hilabeteen buruan: Haurtzaro Ikastolan ekitaldi soziala abuztuaren 31n ixten da.
 - Ez ohikoa.- Nork dei dezake:
 - Administratzaileek (kontseilu kideek) edo kontu-artekariak.
 - Jagolaritza Batzordeak.
 - Boto guztien %20a gutxienez ordezkatzeko duen bazkide-kopurua.
 - Unibertsala.- Bilera batean bazkide guztiak baldin badaude eta aho batez bilera hori Batzar Nagusi unibertsala bihurtzea erabakitzen badute.
- Deialdia.- Deialdia gutxienez 10 egun eta gehienez 60 egun lehenago egingo da.
- Batzarraren balioa:
 - Lehen deialdian, botoen gehiengoa behar da.
 - Bigarren deialdian, edozein boto kopuruekin osatuta geldituko da.
- Bazkideen parte-hartzea ordezkartzaren bidez egin daiteke.
- Funtzionamenduko zenbait argibide:
 - Batzar Nagusia lehendakariak zuzendu behar du.
 - Idazkaria, Kontseilu Errektorearen idazkaria bera izango da.
 - Kontseilu kideek (administratzaileek) joan behar dute batzar nagusietara.
 - Batzar Nagusiaren bileran akta jasoko da.
- Boto eskubidea:
 - Bazkide bakoitzak boto bat emateko eskubidea du.
 - Norbaitek ikastolan bi eginkizun izango balitu, boto bakarra emateko eskubidea izango luke.



- Erabakiak hartzeko gehiengoak
 - Gehiengo soilez.- Hori da ohikoa.
 - 2/3:
 - Sozietatea desegiteko akordioa.
 - Hezkuntza-titulartasunaren lagapena.
 - Estatutuetan gehiengoak ezartzen dituen artikulua bera.
 - Kontseilu Errektoreko kideak kargugabetzeko erabakia, gai-zerrendan agertzen ez denean.
- Batzar Nagusiko akordioen aurka egin dakieke, baldin eta akordio horiek kooperatibaren interesei kalte egiten badiete, bazkide baten edo batzuen, edo hirugarrenen baten edo batzuen onurarako.
- Eginkizunak.- Besteak beste, hauek dira:
 - Haurtzaro Ikastolaren izaera propioa erabakitzea.
 - Irakaskuntza eta beste zerbitzuen kuotak erabakitzea, gaurkotzea eta onartzea.
 - Kooperatibaren Barne Araudia/Hezkuntza Proiektua onetsi eta aldatzea.
 - Kooperatibaren ekonomia-, antolamendu- edo funtzio-egituran funtsezko aldaketak eragin ditzakeen edozein erabaki hartzea, adibidez:
 - Kooperatiba irakaskuntzako sare publikoan sartzea.
 - Kooperatibaren aktibo eta pasibo guztiak inorenganatztea.
 - Helburu soziala aldatzea, baldin eta aldaketa horrek Kooperatiba sorrarazi zuten helburuak eta jarduerak gorde eta errespetatzen baditu.
 - Kooperatiba-mota aldatzea.
 - Indarreko legeriatik eta Estatutu hauetatik ondoriozta daitezkeen beste guztiak.

5.1.1.2.- JAGOLARITZA BATZORDEA

- Osaera.- 3 kide bazkideen artean.
- Batzar Nagusiak izendatzen du.
- Eginkizunak.- Besteak beste, kontu-artekariak dira.

5.1.1.3- KONTSEILU ERREKTOREA

- Zer da.- Batzar Nagusiaren mende dagoen Ikastolako organo ordezkatzailer eta funtzionala.
- Osaera.- 12 kidez osatuta dago:
 - 5 lanbazkide
 - 5 bazkide onuradun
 - Zuzendaria.
 - Administraria

Bazkide ez-aktiboek eta laguntzaileek ordezkari bana izan dezakete.
Aurreikusten da udal ordezkari ere bat izatea.



- **Boto eskubidea**:
 - Langileen eta gurasoen 10 ordezkariak bakarrik dute boto eskubidea.
 - Lehendakariak kalitatezko botoa dauka berdinketak gertatzen direnean.
- **Bileren baliozkotasuna**:
 - Balioz eratzeko, nahikoa da kontseilu-kideen erdiak (5 kide) bertaratzea.
 - Baliozko erabakiak hartzeko, nahikoak dira botoa duten sei kontseilu-kideren botoak.
- **Funtzionamendua**
 - Bilerak oro har 15 egunetik behin egiten dira.
 - Idazkaria: administraria.
- **Erabakiak hartzeko gehiengoak**:
 - Oro har, gehiengo soilez.
 - Botoen 2/3 behar dira estatutuek jasotzen dituzten kasu jakin batzuetan.
- **Eginkizunak**.
 - Batzar Nagusiak eskuordetzen dizkion eginkizunak betetzea.
 - Ikastolaren martxa orokorra gainbegiratzea.
- Kontseilu-kideek **ez dute ordainsaririk** jasoko.
- **Kontseilu Errektore iraunkorra**.- Egoera larrietan, eta Kontseilu Errektorea ezin bada bildu, erabakia baliozkoa izan dadin nahikoa izango da 4 kontseilu-kidek, 2 langile-ordezkarik eta 2 guraso ordezkariak, erabakia hartzea.

Lehendakaria

- **Kontseilu Errektoreak aukeratzen du, kontseiluko guraso ordezkarien artean**
- **Eginkizunak**.- Besteak beste:
 - a) Kontseilu Errektorearen izenean, Kooperatiba ordezkatzeko hainbat erakundetan eta edozein arazotan, baita Kontseilu horren berorren eta Batzar Nagusiaren bileretan buru izatea ere.
 - b) Ahalmena ematea eta dokumentu publiko nahiz pribatuak sinatzea, Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak betetzeko.
 - c) Akordioak hartzerakoan Kontseilu Errektorean gertatzen diren boto berdinketak bere botoarekin erabakitzea.
 - d) Presakakoak diren erabakiak hartzea, eta horien berri lehenbailehen ematea Kontseilu Errektoreko lehen bileran.

Talde honen helburu nagusia Haurtzaro Ikastola Kooperatibaren gestio orokorra aurrera ateratzea da eta, horretarako, hilean behin bilduko da, gutxienez: ostegunetan 17:00etatik 20:00era.

Kontseilu Errektorea, ikasturte honetan, hamalau lagunez osatutako taldea da: 5 bazkide onuradun, 5 lan bazkide, bazkide laguntzaile bat, udal ordezkaria, ikastolako zuzendaria eta administraria.



5.1.1.4.- HEZKUNTZA BATZORDEA. ORDEZKARIAK

Hezkuntza Batzordea

- **Eginkizuna**.- Kontseilu Errektorearen menpe dago, eta hezkuntzaren sustapen eta kudeaketarekin, eta hezkuntzaren edukiekin zerikusia duten gaiak jorratzen ditu.
- **Osaera**.- 10 kide:
 - 3 guraso ordezkari: gelako guraso ordezkarien artean Etapa bakoitzeko ordezkari bat.
 - 3 irakasle ordezkari: etapa bakoitzeko ordezkari bat.
 - 2 ikasle ordezkari: DBHko 3. eta 4. mailetako ordezkari bana.
 - Kooperatibako 2 ordezkari: bata lehendakaria eta bestea zuzendaria.
- **Boto eskubidea**:
 - Guraso, irakasle eta ikasleen ordezkariak bakarrik dute boto eskubidea.
 - Lehendakariak eta zuzendariak ez dute boto eskubiderik.
- **Erabakiak**:
 - Aho batez hartzen saiatuko dira.
 - Lehendakariak ahalmena du gaiak Hezkuntza Batzordetik atera eta Kontseilu Errektorera eramateko:
 - Berdinketak gertatzen direnean.
 - Ikastolaren interes orokorra jokoan ikusten duenean.

5.1.1.5.-- BIZIKIDETZA BEHATOKIA. ORDEZKARIAK

Bizikidetza behatokia Ikastetxean elkarbizitza kudeatzeko organoa da.

Urteko helburuak zehazterakoan ikastetxeko Urteko Elkarbizitza Planean oinarrituko da. Helburuak dira:

- Adostasunezko markoan (errespetu, elkarrizketa, negoziatio,...) berdinen arteko harremanak sustatuko ditu.
- Lagun guztiak baloratuak, entzunak eta partaide direla sentitzea bultzatuko du.
- Erabakiak hartzeko orduan ardura izango du.
- Ikastetxeko bizitzaren parte aktibo izango da.

Bizikidetza Behatokia ondorengo ordezkarien osatzen dute: Hezkuntza Batzordeko ordezkariak, Ikastolako psikologoa, jantokiko arduraduna, eskolaz kanpoko ekintzen arduraduna eta Bizikidetza Taldeko guraso ordezkariak.

Bizikidetza Behatokiak ikasturtean, gutxienez, bost bilera egingo ditu: ikasturtearen hasieran (UEPren onarpena eta difusioa), hiruhileko bakoitzaren amaieran bilera bat (UEPren jarraipena eta ebaluazioa) eta, beste bat, ikasturte amaieran (ebaluazioa eta memoria).

Bertan onartzen den bizikidetzako urteko planaren lanketa Bizikidetza Taldeak bideratuko du.



5.1.1.6.- HIZKUNTZA BATZORDEA

- Kontseilu Errektorearen mende dago.
- Eginkizuna.- Hizkuntza politika kudeatu eta erabakitzen du.
- Osaera: guraso ordezkari bat, irakasle ordezkari bat, bi ikasle ordezkari, Kontseilu Errektoreko ordezkari bat, Zuzendaritzako ordezkari bat eta Hizkuntza Proiektuko 3 ordezkari (eremu kurrikularra, ez kurrikularra eta instituzionala).

5.1.1.7.-INGURUMEN BATZORDEA

- Kontseilu Errektorearen mende dago.
- Eginkizuna: agenda 21 egitsmoa eta bereziki ingurumenaren zainketarekin erlazionatuak dauden proiektuak eta egitasmoak erabaki eta kudeatu.
- Osaera: guraso ordezkariak, irakasle ordezkariak, Kontseilu Errektoreko ordezkariak, Zuzendaritzako ordezkariak eta eskola agenda 21 taldeko ordezkariak.

5.1.2.-KOOPERATIBAREN EKONOMI ARAUBIDEA, DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA.

Hezkuntza Proiektuak estatutuetan jasota dagoen ekonomi araubidea, Kooperatibaren desegitea eta likidazioari dagozkion prozedurak ere jasotzen ditu

5.2.- FUNTZIONAMENDU PEDAGOGIKOA

Ondorengo organigraman edierazten da Haurtzaro Ikastolaren funtzionamendu pedagogikoa:



